



Bilbon, 2025eko abenduaren 20an

TXAPELKETAK ETA/ EDO ENTRENAMENDUAK ANTOLATZEKO LAGUNTZA 2026

2 min

1. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen helburua EAKF-ko federatuei **diru-laguntzak ematea da**, Euskadiko Autonomia-Erkidegoan kirol-jarduerak antolatzeke (entrenamenduak eta/edo txapelketak). ESPEZIALITATE BAKOITZA txapelketak antolatzera animarazi nahi da, Parapente modalitatean Euskadi XC txapelketa, Euskadi H&F edo Prezisioko Euskadiko txapelketak izan daitezkeen bezala.

Emandako laguntzen baturak ez du, inola ere, Batzar Orokorrak espezialitate bakoitzerako esleitutako aurrekontua gaindituko.

2. DOKUMENTAZIOA ETA BALDINTZAK (PROIEKTUAREN MEMORIA)

Proposamenak eakf@eakf.net helbidera posta elektronikoz bidali beharko dira informazio zehatza barne:

- **Jardueraren deskribapena:**
 - Ekitaldiaren xedea eta planteamendu orokorra.
 - Kirol-espezialitatea eta nori zuzendutako ekintza den.
 - Proposatutako lekua eta datak.
- **Logistika eta Aurrekontua:**
 - Behar logistikoak (garraioa, ostatua, langileak, etab.).
 - Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua.
 - **Eskatutako laguntza ekonomikoaren zenbateko zehatza.**
- **Antolakuntza:**
 - Ekimena babesten duen klub arduraduna.
 - Harremanetarako pertsona (izena eta telefonoa).
 - Talde teknikoa: talde antolatzailerak eta, txapelketaren kasuan, Epailea eta *Scoring* arduraduna.



Euskal Aire Kirol Federazioa
Fed. Vasca Deportes Aéreos



3. PROZESUAREN KRONOGRAMA

- **Abenduaren 1a:** Deialdiaren hasiera. Lurralde-federazioei jakinaraztea eta klubei zabaltzea.
- **Urtarrilak 31:** Proposamenak aurkezteko azken eguna.
- **Urtarrilak 31 - Otsaila hasiera:** Espezialitate bakoitzeko ordezkariak proposamenak ebaluatu eta erabakitzea.
- **Otsaila:** Batzar Nagusian **hautatutako proposamenen berrespena eta azken onarpena.**

4. ANTOLATZAILEAREN BETEBEHARRAK Diruz lagundutako ekitaldietan, federazioak antolatzaileen esku jarriko duen irudi- eta azpiegitura-materiala erabili ahal izango da, ahal den neurrian: karpak, podiuma, helmuga-arkua, banderolak, etab.